



Ayuntamiento de Ansoáin  
Antsoaingo Udala  
C.I.F./I.F.K. P3132500D  
Tel.: 948132222  
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1  
Plaza Consistorial, 1  
31013 Nafarroa – Navarra  
[ansoain@ansoain.es](mailto:ansoain@ansoain.es)  
[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)

### **Antsoaingo Udalean polizia agentearen plaza bat eta Berriozarko Udalean bi plaza oposizio lehiaketa bidez betetzeko deialdia.**

Epaimahai kalifikatzaileak hiru hautagairen alegazioak jaso zituen, eta honako erabakiak hartu zituen 2021eko ekainaren 18an egindako batzarrean:

Denis Sukhanov Sukhanov jaunak aurkeztutako alegazioa ikusita, 9. galdera baliogabetzeko eskatzen duena galdera horrek erantzun zuzena duelako bere enuntziatuan, epaimahaiak honako hau erabaki du:

1. Baiestea aurkeztutako alegazioa, honako argudio hauetan oinarrituta:

Galderan bertan zehaztu da erantzuna, eta, nahiz eta hautagaien arteko berdintasun baldintzak ez urratu, lehia tarte murrizten da; beraz, ordeztu egin behar da.

2. 9. galderaren ordeztu, 71. zenbakiarekin identifikatutako erreserbako lehen galdera jartzea.

Rubén García del Molino jaunak aurkeztutako alegazioa ikusita, 5. galdera baliogabetzeko eskatzen duena erantzuna ez datorrelako bat Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.2 artikuluan, aurkeztutako alegazioa ezestea erabaki du epaimahaiak, honako argudio hauetan oinarrituta:

Proposatutako erantzunen idazketak ez dio erreferentziako lege testuaren hitzez hitzekotasunari erantzun behar, haien edukiari baizik, eta nabarmena da a) erantzunak zintzo islatzen duela arauaren edukia; b) eta c) aukerak, berriz, bertan xedatutakoaren aurka egiten dute, eta erantzun zuzen bakarra izatearen baldintza betetzen da.

Rubén García del Molino jaunak aurkeztutako alegazioa ikusita, 60. galdera baliogabetzeko eskatzen duena deialdian eskatzen ez diren edukiei dagokiola argudiatuta, epaimahaiak erabaki du aurkeztutako alegazioa ezestea, honako oinarri hauekin:

Udal kale-izendegia, gai zerrendaren eta galderaren xede dena, herriko kaleei emandako izenari buruzkoa da, bai eta izen hori hautatzeko arrazoiari buruzkoa ere. Onarpen hori, pertsona fisikoen kasuan, kultura-, kirol- eta historia-arloetako merezimendu edo jarduera jakin batzuei buruzkoa da, eta, galderaren xede den kasuan, akademikoei buruzkoa, bide publiko horren identifikazio plaketan bertan islatzen den bezala.

Rubén García del Molino jaunak aurkeztutako alegazioa ikusita, 70. galdera baliogabetzeko eskatzen duena, galdera behar bezala formulatuta ez dagoelako, epaimahaiak honako hau erabaki du:

1. Baiestea aurkeztutako alegazioa, honako argudio hauetan oinarrituta:

Planteatutako hitz hasierak lotzen dituen kontzeptuak ez aipatzeak (bio-, bi-, bis-, bene-, bien-) erantzunaren baliozkotasuna zalantzan jartzen du, eta b) eta c) aukerak zuzentzat hartzea ahalbidetzen du, galdera bakoitzeko erantzun zuzenaren irizpidearekin kontraesanean.

2. 70. galderaren ordeztu, 72. zenbakiarekin identifikatutako bigarren erreserba galdera jartzea.

Claudia Beatriz Baber andreak aurkeztutako alegazioa aztertu da, 5. galdera baliogabetzeko eskatzen zuena erantzuna ez zatorrelako bat Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.2. artikuluan jasotakoarekin. Aurkeztutako alegazioa ezestea erabaki du epaimahaiak, honako argudio hauetan oinarrituta:

Proposatutako erantzunen idazketak ez dio erreferentziako lege-testuaren hitzez hitzekotasunari erantzun behar, haien edukiari baizik, eta nabarmena da a) erantzunak zintzo islatzen duela arauaren edukia; b) eta c) aukerak, berriz, bertan xedatutakoaren aurka egiten dute, eta erantzun zuzen bakarra izatearen baldintza betetzen da.



Ayuntamiento de Ansoáin  
Antsoaingo Udala  
C.I.F./I.F.K. P3132500D  
Tel.: 948132222  
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1  
Plaza Consistorial, 1  
31013 Nafarroa – Navarra  
[ansoain@ansoain.es](mailto:ansoain@ansoain.es)  
[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)

Claudia Beatriz Baber andreak aurkeztutako alegazioa aztertu da, 6. galdera baliogabetzeko eskatzen zuena erantzuna ez zetorrelako bat Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52.2. artikuluan jasotakoarekin. Aurkeztutako alegazioa ezestea erabaki du epaimahaiak, honako argudio hauetan oinarrituta:

Proposatutako erantzunen idazketak ez dio erreferentziako lege-testuaren hitzez hitzekotasunari erantzun behar, haien edukiari baizik, eta nabarmena da a) erantzunak zintzo islatzen duela arauaren edukia; b) eta c) aukerak, berriz, bertan xedatutakoaren aurka egiten dute, eta erantzun zuzen bakarra izatearen baldintza betetzen da.

Claudia Beatriz Baber andreak aurkeztutako alegazioa aztertu da, 9. galdera baliogabetzeko eskatzen duena, galdera horrek erantzun zuzena duelako bere enuntziatuan. Epaimahaiak honako hau erabaki du:

1. Baiestea aurkeztutako alegazioa, honako argudio hauetan oinarrituta:

Galderan bertan zehaztu behar da erantzuna, eta, nahiz eta hautagaien arteko berdintasun baldintzak ez urratu, lehia tartea murrizten da; beraz, ordeztu egin behar da.

2. 9. galderaren ordeztu, 71. zenbakiarekin identifikatutako erreserbako lehen galdera jartzea.

Claudia Beatriz Baber andreak aurkeztutako alegazioa aztertu da, 63. galdera baliogabetzeko eskatzen zuena, Antsoain edo Berriozar herriaz ari zen ez zehazteagatik. Aurkeztutako alegazioa ezestea erabaki du epaimahaiak, honako argudio hauetan oinarrituta:

Egindako galderaren erantzunean ez du axola galderaren xede den herria identifikatu den ala ez, eta hori erabakigarria izango zen bake epaitegi biak erantzun aukera gisa sartutako 3 kaleetatik bitan egonez gero.

Claudia Beatriz Baber andreak aurkeztutako alegazioa aztertu da, 64. galdera baliogabetzeko eskatzen zuena, aukerako 3 erantzunetan akats ortografiko bera agertzeagatik. Aurkeztutako alegazioa ezestea erabaki du epaimahaiak, honako argudio hauetan oinarrituta:

Ortografia akatsak ez du galderaren zuzenketa eta erantzun aukerak aldatzen, eta ez du nahasterik sortzen ia antzeko izena duen beste ikastetxeren batekin. Gai hori, gainera, kale izendegia (galderaren xedea) ezagutzearekin batera gauzatzen da, izen horretan beste eskolarik ez dagoela jakitea baitakar.

NAPlri ariketen zuzenketa berria eskatzea, 9. eta 63. galderak kenduta eta 71. eta 72. galderak sartuta.

Hartutako erabakiak interesdunei jakinaraztea.

Antsoainen, 2021eko ekainaren 21ean

LEHENDAKARIA

Iñigo Anaut Peña